

# ¡AMETS BAT DIRURI!



Euskal jostiruditar Federico Larman-i donkitu

eta berak aurkesteko moldatutako bakarizketa.

*Iruditegiak aurkestatzen du, izbribandegi egokiro bear diran  
tresna guztiyakin moldatua*

Au bakardadea! (*Arriturik*) ¡ñor ez dago! ¡Neri gertatzen zaidan guztiyak..... (*Oso mingarritsu eta kalkatuaz*) amets bat diruri! Maitati izateko jayo nitzan mundura, bañan nere maitasunak arkitzen ditu bide guztiyak ertzitu, edo ichiyak. (*Mingarritsu*) Nere bizitzaren asiyerak dira, desberdiñ eta mingarritsuak. Ni maitati izateko jayua banaiz, ¿nola nere amoriyuak mundu ontan ez du arkitzen zabal-tasun edo lasaitasun geyago? (*Ichedon*) Nere biyotzak badiruri daguela, lau gizon armadunen artean, gizabasati gaisto eriotzkillle bat katibat-urik egon oi dan bezela. Bere maitasunak kanporatzen sayatzen danian, ataka sendo, eta gogor ichiyak arkitzen ditu. (*Kalkatuaz*) ¡Au bizi modu biurra! Jayo, eta bi urte osatu bañan len, galdu nuben..... (*Kalkatu*) Aita. Nik ez nuben ezagutu, edo ez naiz oroitzen ezagutu banuben ere. ¡Galduesandet!..... Nik ez nuben galdu. Amak esan oi ziran-ez, gaitz gogor baten mendean luzaro egonik, eriotz beltzak berekiñ eraman zuben, arranuak chitua atzaparretan eramaten duben be-zela, eta bertatik gelditu nitzan, aitarik gabe. (*Ichedon*) ¡Orra!..... ¡Orra nere izaeraren asiya mingarritsua! Ni arrazoitzera irichi bañan len, ill zan neretzat, eta mundurako nere aita, Jaungoikuaren agintza aundiz. Ondoren bizitu nitzan amar urte osatu bitartean, nere ama maitiaren arrimuan, chit ondo, guztiz alai eta pozgirotsu, bañan ala bearra izango zan noski, gau batean asi zan esanaz otzikarak nabaitzen

zituela, eta ondo es aundiya barrundatzen zubela beregan; gau guztiya igaro zuben lorik egin gabe; eguna argitu zuben beziñ prest, ama gaisuaren agintez, deitua izan zan sendakiña, zeñak, ondo ikustamendu ondoren esan zuben, apaizaren agertze batek etzubela kalterik egingo gaisuaren animan osasunerako; bada bere jakindurizko egintza guztiyak alperrikatuak izango zirala. (*Mingarritsu kalkatuaz*) ¡Zer goiz mingarritsua izan zan neretzat! (*Negarrez*) (*Kalkalkizun aundiz*) ¡Oroitziak bakarrak, biyotza purrukatzen dit! Elizakuak artu, eta ordu erdi bat bañan len, gelditu nitzan amarik gabe umezurtz negargarri bat. (*Ichedon*) ¡Zer doakabesko eguna! Orditik gelditu zitzaidan biyotza negartitua, maitasuna noratu eziñik. Diruz ondo utzi ninduten gurasuak. ¡Bañan diruak zer baliyo du, amoriyuari irteerarik eziñ eman bazayo! Nik ez dakit, bañan guztiyak..... ¡Ametz bat diruri! Geroztik egon zait luzaro samar biyotza, bizi dan siñalerik eman gabe, bañan bi urtez onuntz, amoriyua ugaritzen (*da esatia*) daukatala berotasun geyegiz irakiten balego bezela. Bere bultzadak, ez dirate pakerik ematen. ¿Nola liteke nik, pakezko bizi gisa izaterik, nor maitatu gabe gelditu banaiz? Biyotza mugitu zaidan beziñ prest, pistu zait maitasuna, eta onen pistuerakin batian, sortu zaizkit irudimen naikidatsuak. Bide la-sai eta zabalak eskatzen ditu nere biyotzak, amoriyuari opa bear zaizkan irteerak emateko, eta emango diyoskat, baldiñ Jaungoikuak nere otoitzak ontzat artzen baditu. (*Ichedon*) Urte bete inguru izango da, damacho eder batekiñ, amoriyuaren bidez edo agintez, lenengo itzalditu nitzala. Dijuan leku guztiyetara, laguntzen diyot atsegiñtasun aundiyarekin. ¿Nola ez bada, nor maitaturik gelditu ez bazait? Gurasuakiko maitasuna galdu nuben ezkeru, nere biyotzak amoriyuari eman diyon irteera, orrenganuntza izandu da. (*Ichedon*) Oraindik ez dakit maite nauben, bañan nik maite detan ainbeste berak maite banau, lengo ez bear guztiyak astu araziko dizkit, eta biziko gera bi biyotzak trabeskaturik zori ontasun aundiyan. (*Ichedon*) Nik uste det orren maitasuna neregana-tuko detala; alakorik gertatzen bada, nere izaera osoro lasaiturik osasunduko da nere biyotza. ¿Ni maitatiya izana, utsegite aundiyan bat alda bada neretzat? Ez, ez: Jaunkoiguak ere bere legeko agintzetan, elkar maitatzeko agintzen du. (*Ichedon*) ¡Antoni! Antoni; au da damacho maite detanaren izena. Berak badaki asko maite detala, beintzat neri ala iruditzen zait. Bañan ni gaizki nago, berak maitasunik baditan jakin gabe. Itzez esatera ez naiz iristen: ¡ain naiz lotzatiya! ¿Bañan zer? batek bear duben gauza bat eskatzeko, ez dauka

lotzakisunik. Gaur illunabarrian ikusten detanian, eta echera lagun tzerakuan, agertu bear diyot nere amoriyua zenbaterañokea dan. Gaur bertan erabaki bear da guztiya. Onla luzaro eziñ egon niteke. ¿Bañan lotzatzen banaiz? ¿Zer lotza, eta zer kalabaza? Ezetzkoa nerekin daramat. Nola esan ere, aurrena asmatu bearko det, zergatik ni gauza abetan oitura gabia naiz. (*Ichedon*) Asmatu det, lotza guztiyak alde bat utzirik, esango diyot samurkiro gisa onetan. Onezkero nere maitasuna zuretzako dala jakiñian egongo zera noski? Bayetz esaten badit esango diyot, bada ni nago, zuria neretzako ote dan jakiñ nayan. ¿Bañan lotzak mendian artu, eta mingaña toteltzen bazait? (*Ichedon*) Obeko det izkribuz jakiñ arazi, nere luma ez da lotzatzen, eta agintzen diyotan guztiya egiten dit, nik gogo detan bezela. Ea bada, guazen maira, eta ekiñ zayoan lan berri orri. (*Eseritzen da, eta izkribatu ondoren irakurtzen du beretzat*) Orra izkribu ederra egiñ azkar. ¿Oni zer erantzungo diyo? Nere asmuetakua balitz. bayetz, bañan ez dakit, bildur naiz. Bildur izateko diña ere bada. (*Ichedon*) Ez nuke utsegiñ nai, bañan, lengo egun batian uste det ikusi nubela beste galai gazte batekin, guztiz mintzakitsu zirudiyela. Irudi zuten oso elkar maiteak, zergatik nere iritziz, begirakunik elkargandik bereisten etzuten. Neri ez bezela begiratzen ziyon bai: ¡Aulana! Bañan ez; abek nere irudimenak izango dira, zergatik bat, biyotzak mendean artzen badu, buru guztiya zurrunbillatzen diyo, zer egiten duben ez jakiñik jartzeraño. Egiya esateko, neri gertatzen zaidan guztiyak..... (*Samurkiro*) ¡Amets bat diruri! (*Ichedon*) ¿Bañan gazte orri bayetzkoa agindu badiyo zer egin bear det nik? ¡A Jauna! Arren, da arren eskatzen dizut biyotza zugana jasoaz, neretzat izan dedilla nere amoriyuak beretzat, begiztaratu duben, Antoni. (*Ichedon*) ¡Ai bada! ¡E.....ne! ¡E.....ne! (*Izerdiya chukatzen*) (*Ichedon*) ¡Ametsa diruri, bañan ez da. (*Ichedon*) Barrunak esaten dit, eta egiya izango da gazte orrekin dituela ezkontzeko asmuak. ¿Eta nik zer egin bear det? Nere maitasuna desegiñarekin, desegiten zait guztiya. Gis ontan eziñ bizi niteke luzaro, zergatik maitasun gabeko gizona da, somorro batek zañak jantako landare bat bezela: ¡Illa! ¡Ni maitasunik gabe eziñ bizi niteke! (*Asten da asnaz larritzen chit nekoso*) ¡Ni maitati izateko jayua naiz, eta ala izango naiz biziya irauten diran artean! ¿Bañan nik zer egin det nere amoriyuaren ordañik ez arkitzeko? (*Asnasa larrigozten*) ¡Abek doakabesko egunak! ¡Guztiyak..... amets bat diruri! ¿Noiz, noiz izango naiz zoriontasun guztiyaren jabe? ¡Beñerez! ¡Onezkero,

neriak egin du! ¡Ai, Antoni; Antoni! ¡Zure maitasun besterenganako  
orrek, ill bear nau!

*(Joaten da polliki, polliki, izkriba maira eta lumari elduaz  
egoten da piskacho batian isilik.)*

*(Guztiz total) ¡Ausen da aula arki naizena! ¡Au nekia! (Deika)  
¡Antoni!..... ¡An.....to'ni! ¡Zeñi deitzen diyot nik? Guztiya alferrik.  
¡Amets bat diruri! ¡A..... A..... An.....to'ni (Illtzen da).— Amaitu da.*

JUAN IGNACIO URANGA.

